

bid egileak



Manuel Olaizola *Uztapide* (1909-1983)

Egilea:

PELLO ESNAL

*M*anuel Olaizola Urbieto, Uztapide bertsolaria, gaztetan hasi zen bertsoan. Eta II. Bertsolari Egunean parte hartu zuen, 1936an. Gerra ondoren, berak berpiztuko du bertsoaritza, Basarriekin batera, plazaz plaza kantatuz. Euskaltzaindiak antolatutako bertsolari-txapelketetan parte hartu zuen 1960an, 1962an, 1964-1965ean eta 1967an; eta txapeldun irten zen azken hiru hauetan. Lehen liburua, *Noizbait*, ia osorik bat-bateko bertsoz ondua, 1964an plazaratu zuen. Ondoeza egin zitzaion 1972an, bertsoan ari zela, eta betiko utzi behar izan zuen bat-bateko bertso gintza. Hiru urte geroago, 1975ean, plazaratu zuen *Lengo*



Manuel Olaizola *Uztapide* (1909-1983)

egunak gogoan autobiografia, prosa; eta 1976an, *Sasoia joan da gero*, bertso idatziz osatutako liburua. Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen 1974ko maiatzaren 25ean.



Uztapide txapelduna, sariak eskuetan, jendea agurtzen, 1967-VI-11

Uztapide sortetxea

Manuel Olaizola Endoiako Uztapide baserrian jaio zen 1909ko maiatzaren 10ean. Elizaz Arroako parrokiakoa zenez, hantxe bataiatu zuten, Santa Anari eskainitako elizan, beste senide guztiak bezalaxe.

Herriek ibaitik ibaira izan ohi zituzten mugak; Debak hartzen zuen, esaterako, Urola ibaitik Deba ibairainoko lurraldea. Orain bertan ere, horregatik dago Ekain harpe famatua Debako sailetan, Zestoako atarian egonik.

Hala ere, Arroa 1852an Debatik askatu eta Zestoari lotzean, zestoar bilakatu ziren zenbait baserri: Endoiako Uztapide eta elizaz Arroakoak ziren. Familia horiek, jakina, Arroako elizara etorri ohi ziren bataiatzera, hiletara eta igande eta jai-egunetako mezetara ere. Arroara baitzuten elizbidea eta gorputz-bidea.

Bertako baserritarrek 1952an eraiki zituzten Endoian eliza, frontoia eta eskola. Uztapideren garaian, ordea, Arroan zuten pilotalekua ere, elizaren kontrako horman. «Arruara jextitzen giñanean, bai guk poz ederra. An bazegoan, ba, frontoia! Ez giñan bereala asper-tuko, guk ura libre arrapatzen bagenduan. Antxe bai gozatuko giñala» (*Lengo egunak gogoan*: 39 or.).

Xalbador bertsolariari bezalaxe, sortetxeak eman zizkion Manuel Olaizolari ere izena eta izana. Handia zen Uztapide baserria lurrez eta etxez, eta eroso lanerako. Ordekak zituen soroak eta belazeak, eta oso inguruan pagadia eta garo sailak.

Uztapidek berak, *Lengo egunak gogoan* liburuan, 1974an, honelaxe gogoratzen du baserria, nahiz eta geroxeago eginak izan zenbait obra: «Itxas-bista ederra da; udarako toki ona. Gain baten dago. Atari-jira ederra du; patxara ederrekoa. Kamioa ere badu; eleiza ere bai; atarian eskola emateko tokia ere bai; apaiz-etxea ere bai; telefonoa ere bai, Uztapiden bertan».

Baserri horretan eta Maria Unanue amonaren itzalean haziko da Manuel mutikoa, familia handiaren baitan. Izan ere, amonak, gazterik alar-gun geratuta, Manuelen aita eta hamaika osaba-izeba hazi zituen. Ondoren, beste zortzi biloba ere zaindu behar izan zituen, lau anaia eta lau arreba baitziren Manuel-eta. Eta honen anaia Joxe Marik ere etxera ezkondu eta be-deratzi seme-alaba izan zituen.



Uztapide baserria, 1974-VI-2

Eskola etxez etxe

Hogei bat baserri ziren garai hartan Endoian: dozena-erdi bat, Zestoa partekoak; beste guztiak, Debakoak. Hiru hilabetetik hiru hila-betera aldatzen ziren etxez bai maistra eta bai eskola; izan ere, Debako baserri horietan bizi zen txandaka irakaslea. Soldata ere Debako udaletxetik jaso ohi zuen.

Erdarazkoak zituzten eskolako liburuak, dotrina izan ezik. Hori, behintzat, ulertzen eta ikasten zuten, aurrenetik azkeneraino, eta beharko, «Arroan zegoen bikarioarekin». Erretoreari esan ohi zaio bikarioa zenbait tokitan. Kontuak ateratzen ere ikasi zuten, noski. Baina lau erregelak ikasi orduko, beste lan batzuetan hasi behar.

«Irakurtzen ere ikasi genduan frenorik gabeko automobillak bezela; ez puntu ta ez koma. Dana segiran. Guk ez genduan iñon kerarik egiten. Lana ugari ateratzen da orrela. Eskribitzen ere jarduten genduan, ortografia auzoan. Baña ni orrekin serbitzen naiz orain ere» (*Lengo egunak gogoan*: 37-38 or.).

Hamahiru urte zituenean, aitag Zurbanora eraman zuen Manuel, anaia Joxe Marirekin batera, erdara ikastera. Arabako lautadan, Arratzu-Ubarrundia udalerrian dago Zurbano, bere jauregi ederrarekin. Ama Birjina martxokoaren egunez, martxoaren 25ean, kukua azaldu ohi den garaian, iritsi ziren Gas-



Uztapide gaztea

teiza, Arroan tren hartuta, Elgoibar eta Gatzagan barrena. Gasteizen bazkaldu eta Zurbanora, alkatearen etxera lotara. Biharamunean, aitek bakarrik utzi zituenean, morroi jarri ziren baserri banatan.

Uda eta udazkeneko lanak arindu zirenean, eskolara joaten hasi ziren neguan. Bost hilabete zituzten izendatuak, baina lau bakarrik egin zituzten. Hamalau eta hamabost urte bete zituztenean, Uztapidera itzuli behar izan zuten bi anaiek.

Bertsozaletasuna mutikotatik

Uztapidek, bizi zela, gogoan zituen zortzi urterekin ikasitako bertsoak. Joxe Antonio Urkia Garate *Orioko Exkela* joaten omen zen Arroara bertso-paperak saltzera. Meza ondoan kantatu ohi zituen ahots ederrez, eta bukatutakoan hasi saltzen. Hari entzunez bertsozaletu zen Manuel, eta hari erositako bertsoz burua bete. «Pentsatu besterik ez dago: zortzi urterekin asi ta amaseirekin-edo tabernara joaten asi giñanerako, burua dana bertsoz betea gendukan guk», dio Manuelek berak.



Kontxita Iturainekin ezkontza-egunean, 1952an

Asteasuko Aranburu-berri ere joaten zen Zestoako feriara bertso-paperekin. Arozpide baserriko mutilzahararekin jardun ohi zuen bertsoan. Eta, halako batean, hamasei urteko Manuel ere trabatu da Aranburu-berrirekin bertsoan. Oso gazterik ezagutu zuen Uztapidek beste bertso-saltzaile bat ere: Bizkaiko Prudentzio Abarrategi *Besamotza*.

Auzolan asko izaten zen orduan baserrietan. Egun batean, igitiaz garia ebaki ondoren, berrogei bat lagun bilduak ziren Olaberri baserri: tartean, Zubeltzu bertsolaria. Bertan

zegoen morroi Uztapide, hemezortzi urteko gaztea. Afalondoan, elkarrekin jardun zuten biek bertsoan.

Mila pezetakoa zen Manuelen urteko soldata, eta morroiak behar zituen arropak. Olaberri utzi eta Atauna joan zen, markesaren basora. Ilunabarrean, txabolan zeudela, Zepai sartu zitzaien barrura, hura ere baso haietan lanean. Ordurako jarduna zen Akilino Zepai bertsoan Txapel eta Txirritarekin. Uztapide, berriz, orduan estreinatu zen Zepairekin.



Senar-emazteak Manu semearekin



Uztapide Azpeitiko kanporaketan, 1936-I-1



Uztapide 26 urteko gaztea, Donostiako txapelketan, 1936-I-19



Oartzungo Lagunzarrene baserria

Uztapidek, dena dela, ez zuen parte hartu 1935eko bertsolari-txapelketan, I. Bertsolari Egunean, Basarrik irabazi zuen hartan. Hurrengorako, ordea, izena eman eta Azpeitian suertatu zitzaion kanporaketa. Baina, aurrekoa Tolosan zenez, han zen entzule, abenduaren 29an, bertara bildutako bederatzi bertsolarien —tartean zen Txirrita bera— jarduna aztertzen, Azpeitiko saiorako zerbait ikasiko zuelakoan. Gero, hamaika bertsolari neurtu ziren Azpeitian: Uztapide, Zepai, Txapel, Loisdialetxe, Kortatxo...

Txapelketa Nagusia Donostian jokatu zen, II. Bertsolari Egunean, 1936ko urtarrilaren 19an, lurralde bakoitzeko onenekin. Tartean zen Uztapide. Eta berari omen zegokion le-

hen saria, baina Txirritari eman adinagatik, Uztapiderentzat bigarrena utzita.

Berehala, gerra etorri zen. Eta bertan ibili ziren Basarri eta Uztapide, alde banatan. Hura amaituta, aurreko bertsolarien lekukoa hartuz, biek jasoko dute bertsolaritza goi-mailaraino, herriz herri ibiliz kantuan, beste bertsolari batzuekin batera.

Oiartzungo Laguntzarrene baserrira joan zen gero Uztapide bizitzera. Eta, hantxe, aldameneko tabernan, aurkitu zuen Kontxita Iturain, gero emazte izango zuena. Berrogeita hiru urterekin ezkondu zen Manuel. Baina familia hazi beharrak ez zuen bertsolaritzaatik atzeratu.

Gizon miretsia

Uztapideren hiru alderdi nagusi landuz osa dezakegu azalpen soil hori: Uztapide gizona, Uztapide bertsolaria eta Uztapide idazlea. Hainbat herritarren ahotsa bilduz egingo dugu, bai Uztapide ezagutu zutenena, bai bertsolaritzan aditu direnena.

Gizonaz hitz egitean, ezinbestekoa da bere izaeraz eta bera bizi deneko inguruaz aritzea. Horretara goaz ondoren, beti ere kontuan izanik zein izan zen batik bat Uztapideren ingurua: ahozko mundua.

Uztapidez, aurkezpen orokor hau egingo du Xabier Euzkitzek, Manuel La-



Tolosako txapelketan, 1945ean

sarteren *Uztapide gogoan* liburuaren hitzazurrean:

Uztapideren aditzera betidanik izan nuen, eta aldioro harritzen ninduen gainontzeko bertsolariek Manuelez zuten miresmen eta begiruneak. Bertsolariz eta gizonez. Txikia nintzeneko bertso giroko jendeak, orduan gehien bat baserri mundukoa zen bertsozaleen multzoak, oso maitea zuen Uztapide.

Izan ere, etorri ederra, ahots indartsua eta oholtza gaina betetzeko gaitasunaz aparte, beste zenbait bertsolari ikasi baino hurbilgokotzat jotzen zuten orduko bertsozaleek, eta gizakiak nekez maitatu ohi du hurbileko sentitzen ez duenik.

Hitz horiek egoki erretratatzan dute Uztapide eta ondo azaltzen bere ezaugarri nagusietako bat: herriarekiko hurbiltasuna. Horrexe-gatik zen horren maitatua.

Gizon hurbila izan zen, baina aldi berean errespetua sortzen zekiena. Hala kontatzen

du Nikolas Zendoiak, «Uztapideren argazkia» izenburupean: «Bazkari-denboran, bere ateraldi batek erakutsi zidan edozein moduz ez zala jardun bear berarekin izketan. Lopategi gaztea zan eta gizon ikasia. An ari zan amar minutu inguruan bere adierazpenak egiten. Jende guztia isilik, berari entzuten. Alegia, mundua noiztik dan, eta gizona tximuarengandik datorrela eta abar. Manuel zarrarra ere isilik; baiña alako batean esan zion: “Ba, zu ere olakoxea [tximua] zera, ba, ta sinistu egin bear ko da”. An bukatu zan Lopategiren sermoia».



Donostian 1936an neurtutako bertsolari-taldea: Txapel, Saiburu, Zepai, Uztapide, Dargaitz, Harriet, Txirrita, Iriart, Etxeberria

Aldi berean gizon hurbila eta errespetua sortzen zuena, serioa eta umoretsua izan zen Uztapide. Hamaika horrelako kontraste irakur daiteke Lasarteren *Uztapide gogoan* liburu bikainean ere. Poliki erakusten digute gizon haren handia eta sakona. Hauxe bera dio Antonio Zavalak, *Lengo egunak gogoan* hizpide: «Ez nuke nai Manuelen beste alderdi on eta gogoangarri bati buruz zerbait esan gabe utzi: aren biotz aundi, bigun eta maitekorra. Maitasuna dariote emengo orrialdeak etxekoentzat, adiskideentzat, erriarentzat, izadiarentzat, gure euskal lurarentzat...[...] Maitasuna eta dirua ezin izkutatu ditezkeela esan zuanak bazekian zerbait».

Hitzaren dohain aparta

Ahozko mundua izan zen batik bat Uztapiderena. Eta ahozko munduan, hitza nagusi. Hizketan trebea izaten da gailen mundu horretan: erantzun errazekoa, ateraldi zorrotzekoa... Horietakoa genuen Uztapide, ondorengo pasadizoek erakusten dutenez.

Lehenengoa, Xabier Amurizari entzuna da. Behin, joan da Amuriza Oiartzuna bertsoara; eta, bertsoak entzutera bildutakoen artean, hor ikusi du Uztapide, bakarrik eserita, bertso-jaialdia noiz hasiko zain. Xabier hurbildu eta ondoan jarrita, hizketan hasi omen ziren denbora-pasa, bertsolari lagunak azal-



Uztapide, Basarri, Ojanguren, Eibarren, 1949an



Semea, erraina eta bilobarekin

du artean. Baina denbora aurrera, eta inor ageri ez. Orduan, Amurizak esan omen zion:

—Hemen gaude, Manuel, bi tonto bezala.

—Bi tonto bezala ez. Bi tonto —erantzun Uztapidek.

Nikolas Zendoiarena da bigarren pasadizoa. Manuel tentatu nahi eta, honela esan omen zioten gazte batzuek, ostatu ataritik, gaueko ordu txikietan: «Zer, Manuel? Etxe alderako martxa al da?». Burua poliki-poliki jiratu eta, denei begiratu ondoren, erantzun omen zien Uztapidek: «Etxe aldera bakarrik? Al baldin bada, bertaraiño».

Erantzun errimatuak edo ditxoak ere ahozko munduaren ezaugarriak dira. Lehen, asko entzuten ziren; gaur, apenas. Uztapideren horietako erantzun bat kontatzen du Nikolas Zendoiak beste pasadizo batean. Idietako bat esku zabalaz bizkarra igurtziz, Uztapidek jabeari galdetu omen zion:

—Aizak, zer ematen diek idi auei jateko?

Besteak, adarra jo naian:

—Auei, lenteja.

Uztapidek, ezpain-biurrika bat egiñaz:

—Oño! Berriz ere edukiko ditek illea ten-teka!

Baina, esanetan ez ezik, eginetan ere azaltzen da gizonaren umorea. Badirudi bizitzari berari ere ziria sartzeko prest dagoela gizon umoretsua. Hona hemen, esaterako, 2005eko ekainaren 8an *Diario Vasco* egunkarian neuk idatzia:

Gaur hogeita bi urte hil zen Manuel Olaizola, Uztapide bertsolari handia, mundualdi hau ondo bete ondoren bertsoz, pasadizoz eta ekintzaz. Noiznahi gogoratzen ditugu haren bertsoak, baina baita bestelakoak ere.

Esaterako, orain bi aste hil da Zarautzen Uztapideren iloba bat, 1934an jaioa, maia-

tzaren 15ean. Jaio da mutikoa, eta hor bidali du haurraren amak, Mariak, Manuel anaia juzgadura, umearen aita ponteko izango zela-eta, izena jartzera. Isidro, jakina; San Isidro egunez jaioa izaki.

Eta badoa juzgaurantz Uztapide gaztea, artean hogeita bost urtekoa, zalantza batean. Izan ere, nola daiteke besterik gabe, San Isidro egunean jaio delako, Isidro izena jartzea umeari, familian Isidro izenekorik inortxo ere ez denean eta, gainera, aita pontekoa bera izanda?

Iritsi da juzgadura. Eta Manuel izena jarri ilobari. Zer arraiol!



Zubeltzuri omenaldia Itziarren, 1959an

Gero, etxerako bidean komeriak: nola esan hura arrebari. Eta...

—Egin al dek zerbait? —arrebak galdera, etxera iritsi orduko.

—Bai —gure Manuelek.

—Ta?

—Nola esan den jarri behar niola izena?

—Manuelek, serio asko.

—Isidro! Nola nahi dek, ba, San Isidro egunean jaioa izanda?

—Ba, seko ahaztu zaidan, neska. Eta ez nioan hirea jarriko, eta neurea jarri zionat.

Hura izan omen zen Uztapideren lehenengo haur besoetakoa. Gero, beste biren aita

ponteko izan zen. Eta biei ere Manuel izena jarri, jakina.

Askotan, batera ematen dira bizitzan eginak eta esanak. Gero, horiek aparteko bizitasuna hartzen dute kontalari on baten ahoan. Eta Uztapide kontalari aparta izan, Antonio Zavalak dioen bezala: «Erriko jendearekin itz asperturik egin badezute, bazkari edo apaldondo batean-edo, aien jarria bukaerarik ez duana dala oartuko ziñaten noski. Baiña bat edo bat beti izaten da gailen agertzen dana. Uztapide zana, adibidez. Ura kontu kontari asten zanean, maai guztia ixildu egiten zan ari entzutearren» (*Auspoaren auspoa II: 239 or.*).



Lasarte eta Uztapide, 1959an



Uztapide 1960ko txapelketan

Jendaurreko bertsolaria

Bertsolari hitzak mundu harrigarri bat dakarkigu gogora: bat-batekotasunaren mundua. Egoera jakin batean, gizonetzko edo emakumezko bat gai da bat-batean bertsoak sortzeko: testu neurtu eta errimadunak kantuz jaulki eta lagunartea gozatu, barrez ipini edo hunkitzeko.

Bertsolari esatean, izateko modu bat ere esaten da, gizaki mota bat, ezaugarri jakin batzuk dituena oro har. Horregatik, bertsolari guztiei aitor dakieke, hein handi batean, Juan Mari Lekuonak jendaurreko bertsolari



Xalbador eta Uztapide, bi lagun buruz buru, 1967-VI-11 txapelketan

aitortutako dohain teknikoak, erretorikoak eta bihotz mailakoak (*Ahozko euskal literatura*: 126-130. or.).

Baina bertsolari guztiak ez dira berdinak. Juan Mari Lekuonak berak, adibidez, bi sail handi bereizten ditu horien artean: eskolatuak eta eskola gabeak; eta bertsolari eskolatutzat jotzen ditu «literatura idatzia, eta honen nolerebaiteko eragina, ezagutzen dutenak». Antonio Zavalak ere antzeko bereizketa egiten du bertso-jartzaileren artean: batzuek badakite «luma eta paperarekin

moldatzen zan bertsoak eta bat-batean kantatzen zanak oso egosketa ezberdiña eskatzen zutela»; beste batzuek, ez, ordea. Beraz, badirudi muga-lerro batek bi mundutan banatzen dituela bertsolariak; lehengoak, behintzat: azken batean, ahozkoaren mundukoak eta mundu idatzikoak. Muga ez da zehatza, eta bereizketak ere zalantzak sortzen ditu. Baina baliagarria zaigu bertsolari baten ezaugarriak azaltzeko.

Horretaz gain, eta sailkapenak sailkapen, bertsolari bakoitzak badu bere «ni» poetikoa ere. Anjel Lertxundik honela dio «ni» poetikoaz, gizakiaren izaera eta artistaren estiloa bereiziz: «Bertsolarien mundutik aterako dizut adibidea: garbi dago Xalbadorren eta Mattinen ni poetikoak guztiz desberdinak direla».

Batzuetan bat datoz gizakiaren izaera eta artistaren estiloa; baina askotan ez. Hori ezin egokiago ilustratzen du, adibidez, Lazkao Txikik behin Mattini esan zionak, bertso baten amaieran: «Pozak kantatzen dakienata/ penak gordetzen dakiña». Gero, horixe bera aitortuko du Lazkao Txikik bere buruz ere.

Horiek guztiak kontuan hartuta azal daiteke nolakoa izan zen Uztapide bertsolaria, ahaztu gabe Basarrirekin batera ondu zuen egitasmo garrantzizkoa.

Uztapide Joan Mari Lekuonarekin, 1967-VI-11

Bihotz handiko bertsolaria

Norbait egokitzeotan, Uztapideri dagozkio, bete-betean, Juan Mari Lekuonak *Ahozko euskal literatura* liburuan bertsolariari aitortutako dohainak, bai dohain tekniko eta erretorikoak, bai «bihotz mailako» dohainak ere. Hauen artean, burujabetza dator lehenik. Eta:

Ondoren sentiberatasuna aipatuko genuke. Inoiz bertsolariak lakarra dela badirudi ere —gaur ez hainbeste, noski—, barrutik sentiberatasun handiko gizona dela sumatzen da eta ikusten. Edonork bere mailan —eta bertsolariak berean—, sakona izango bada, bihotz handikoa behar du izan: «gauzak sakon esango badira, batek bihotz handiko izan behar du» (Uztapideri entzuna).



Bihotz-handitasun horretaz mintzatu zaigu lehen Zavala, Uztapideren «bihotz handi, bigun eta maitekorra» aipatuz. Eta bihotz handi horren erakusle argiak dira, besteak beste, Joxe Lizasori askotan entzun dizkiogun bi bertso ere.

Gau batean, Azpeitian da Uztapide, hango taberna batean afaldu eta gaua pasatzekotan, biharamunean Amezketara joan behar eta bertsoetara. Tabernan zegoen Jose Blanco ere, Urnietako Gurutzeta baserrian hazia, telefonoan enplegatzen zen gizon bat, txistetan-eta izugarria zena eta oso bertsolari polita, Lizasoren esanetan. Bertsoetan ari direla

Uztapide eta Blanco, hor kantatu dio honek berak ama bazuela, baina aitarik ez. Eta ondorengo honela kontatzen du hitzez hitz Joxek *Berriz plazara II* liburuan. «[Uztapidek] ez zeukan, ez, pentsatzen denbora askoan egon bearrikan erantzuteko:

Bein bear eta Azpeitiara
etorria naiz suertez,
Blanco, zurekin elkartua naiz
gaurkun aspaldiko partez.
Beraz, orduan ama badezu
eta aitarikan batez,
Jesus bezela sortu al ziñan
Espirituan bitartez?

Jose Blanco orrek erantzun zion bide baztarrean arrapatutakoren bat izango zala edo orrela, naiko diplomaziarekin. Eta Uztapidek:

Nolabai ere udaberrian
sortu oi dirade susak,
oiek dirade nundik datozen
jakiten ez diran gauzak.
Igarri ezkerro bat ala ziur
bildu bearrean jentuzak,
gero argatik sortzen zaizkigu
olako Niño Jesusak.»



Uztapide frontoia bete entzulez, 1965ean



Jose Blanco eta Meltxora bere emaztea

Xenpelar, Udarregi, Pello Errota eta Txirritaren hariko

Juan San Martinek, Uztapideren bertsokera gai hartuta, Xenpelarren hariko jotzen du zestoarra; Basarri, bitartean, Otañoren jokarako. Antonio Zavalak ere, Uztapide bertso-jartzaileaz ari dela, beste bertsolari baten estiloarekin alderatzen du Uztapiderena: Xalbadorren estiloarekin; eta, denboran atzera eginez, Xalbadorren estiloko jotzen ditu Bilintx eta Otaño; Uztapide, berriz, Txirrita, Pello Errota eta Udarregiren estiloko. Eta, nahiz eta Juan Mari Lekuonak eskola-



Alfonso Irigoien gai-jartzailea eta Basarri eta Uztapide 1963ko txapelketan

tuen artean sailkatu Uztapide, bete-betean dago zestoarra ahozko munduari atxikia.

Juan San Martinek bertso batez ilustratzen du berak esana. Fernando Artola *Bordari* zenak ofiziotan jarri omen zituen lau bertsolari: Uztapide alkate, Joxe Lizaso sekretario, Azpillaga maisu eta Basarri apaiz. Eta honela kantatu omen zuen Uztapidek:

Dotriñarikan ez dakiena
jarri dute erretore.
Maixutzat, berriz, or da bestea
gure izkuntzarik gabe.
Sekretario au eginda dago
bizio guztien jabe.
Alkate onik ez da auentzat
edozein ipiñita' re.

Juan Mari Lekuonak, berriz, bertsolarien bat-batekotasuna azaltzeko, honela dio: «Azpeitian omen zen. Bertsolarien aurrean, jendar-tean, aitona xaharra entzule. Baina, eztulka eta eztulka ari omen zen nonbait. Batzuk kexu ziren, entzutea galerazten zuenez. Orduan Uztapidek, gehiago pentsatu gabe, horrela hasi zuen lauren artean osatu beharrezko bertsoa, puntu-errondan ari zirenez:

Onek ez dik asko palta
oraintxe iltzeko (Uztapidek)
ai! zer gaitz xarra daukan
mundun ibiltzeko (Joxe Lizasok)
Zein da boluntario
zuluan sartzeko (Basarrik)
Ni preparatuko naiz
buruan jotzeko (Zepaik)».



Azpeitian, 1966an, Lazkano, Uztapide, Basarri, Lizaso eta Agirre, 1966-VI

Bai. Askotan jardun zuten elkarrekin Basarrik eta Uztapidek: Basarrik, jardunaren nondik norakoa markatuz; eta Uztapidek, haren arrastoari jarraituz eta ziria sartuz. Esaterako, Joxe Mari Lertxundik ezin egokiago kontatzen du Aiako festetan behin gertatua. «Inguru guztia jendez beteta zegoan, eta aurreko aldean erriko alkate jauna bere zinegotziekin aulkietan eserita. Alkatea eun eta berrogei kilo izango zan gutxienez, eta ortatik etorri zan Uztapideren bertso gogoangarri ura. Basarrik, kantatzeko bidea jarri zion, azkeneko bi puntuak onela kantatuz:

Orain urrengo eginkizuna
au degu bertsolariak:
bion artean jaso ditzagun
erriko agintariak.

Uztapidek:

Basarri oni burutazio
xelebrek zaizka etortzen,
zer lanbidetan sartutzen geran
ezta kontuan erortzen.
Agintariak goraltze ori
etziok erreza lortzen,
kostako zaiguk alkate jauna
emen goraño jasotzen.

Uztapideren bertsoa entzun zan une ura, Aiako plazan arrigarria izan zan. Ura adierazteko ez dago itzik. Ango parre-algarak eta aiek oiuk! Ura jendearen eromena!» dio Joxe Mari Lertxundik.



Uztapide eta Basarri

Maisu eta zubi

Juan Mari Lekuona Basarriren bertsolari-proiektuaz ere mintzo da. Izan ere, egitasmo hori gabe ezin uler daiteke bertsolaritzaren gaurko indarberritzea. Baina, era berean, egitasmo horren gauzatzea ezin uler daiteke Uztapiderik gabe. Uztapide ez zen soilik izan Basarriren hainbat eta hainbat saiotako bertso-laguna. Horretaz gain, hura izan zuen Basarrik egitasmoa gauzatze-lanetan lehen lankide.

Norbaitekin partekatzekotan, Uztapiderekin partekatu beharko lituzke Basarrik, inolako zalantzarik gabe, Juan Mari Lekuonak eskaintako laudorioak. Uztapide izan baitzen, Basarriekin batera, lehengo bertsolaritzaren eta gaurkoaren arteko zubi, bertsolari berrien aita eta maisu, Gorka Aulestiak esan duen bezala.



Lehen bertso-eskoletako ikasleak Uztapide bertsolariarekin, 1983ko maiatzaren 14an.
Ikasleen artean: Jon Eizmendi, Felix Iñurrategi, Jon eta Aitor Sarasua, Joxe Mari Mujika Anatz, Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Iñaki Izarzelaieta eta Danel Goikolea

Sasoia joan da gero (1976)

Baina Uztapide, bat-bateko bertsolari handia ez ezik, bertso-jartzailea ere izan zen, eta ona gainera, nahiz eta ia bertso guztiak sasoia joan eta gero jarri, *Sasoia joan da gero* liburuan hain zuzen, eta Uztapidek berak esan atarian «ni ez naiz bertso-jartzailea».

Liburuaren hitzurrean, Joxe Mari Aranaldek dio: «Egia ote da “bertso-jartzallea” ez dela gure zestuarra?». Eta Joxe Marik berak erantzuten du, hain berea zuen estiloan: «Barka, Manuel, baina deskuido ederra badaukazu hortan. [...] zu bertso-jartzaile ona zera. Gogoan al dituzu zure lehenengo liburuxkan,


NOIZBAIT izeneko hartan, Zestuan egin zizuten omenaldiaz jarri zenituen haiek? Dozena batetik gora badira eta zuk han agertzen dezun eskua egun hartako atze-aurre guziak puntarik punta kontatzen, ez da nolanaiko bertso-jartzaile batena. Hala gauzak esateko urrenez-urren, eta akto bakoitzean detailerik nabarmen hura izendatuz, eta gero bertso bakoitza hala errematatuz, bertso-jartzaile ona behar du izan. Zu zerana, Manuel». Eta, hain zuzen, arte hori darie liburu honetako bertsoei, nahiz eta sasoi joan eta gero idatziak izan.



Hitz lau eta bertsotan ondutako bi liburu



Sorterriko omenaldian Xabier Unanue alkatearekin



Noizbait liburu

Juan Mari Lekuonak, lehenago ikusi dugunez, bertsolari eskolatuak eta eskolatu gabeak bereizten ditu, bertsolari eskolatutzat jotz «literatura idatzia, eta honen nolerebaiteko eragina, ezagutzen dutenak». Eta bertsolari eskolatuen artean kokatzen du Uztapide.

Bertsolari eskolatu zen Uztapide, bai, baina betiere esanahi zabal horretan hartuta *eskolatu* hitza eta kontuan izanik «nahiko zaila dela bereiztea nortzuk diren sail batekoak eta nortzuk bestekoak, batez ere azken urteotako bertsolariez ari garela. Gauza nabaria da —komunikabideak direla medio, eskolak direla eta abar—, gaurrengungo bertsolariak kultura idatziaren giroan bizi direla gehienak».



Lizaso, Lazkao-Txiki, Uztapide, Lopategi, Lasarte, 1981-11

Lengo egunak gogoan (1974)

Bi liburukik osatzen dute *Lengo egunak gogoan*, euskal irakurlegoa zur eta lur utzi zuen Uztapideren autobiografia luzea, «prosa bizi, bero eta jatorrez osatua, iñongo bertsolaririk ordura arte egin etzuan lana», eta oraintsu berriro ere argitaratu dena, *Berriz plaza-ra* liburu bikoitzaren baitan.

Juan Mari Lekuonak hitzaurrean dioen bezala, harrigarria da Uztapideren obra hau, «al-

derdi askotatik begiratuta»: lehenik, bertso-
tan ez baina, prosaz idatzia delako; eta, ho-
rretaz gain, liburu aberatsa eta sakona delako,
«erri-jakinduria zaarrez eta kultura-gai zuu-
rrez bete. Liburu atsegina, orrialde guztietan
eta pasarte askotan ustekabeko apainduriaz
josia [...]. Itz batean, literatura errikoiaren
gordailu ederra. Eta mami ori guzia Manuel
Uztapideren nortasunean bat egin eta ora-
tua, aparteko etorri batekin —ez da makala
izketan!—, bere kondaira dardaratia ematen
digula».

Eta are harrigarriagoa da, kontuan izanik
hauxe dela Uztapideren prosazko lehenengo
obra eta bakarra, liburu mugarrria izan dela
herri-literaturan eta bideak zabaldu dizkiola
beste hainbati. Baina hori guztia ulertzeko,
Auspoaz hitz egin behar da: Antonio Zavala-
ren egitasmo handi bezain oparoaz.



Lopategiren omenaldian, Matxain eta Joxe Salaberria atzean, 1966-VI

Auspoa sailaren mugarrri

Gaur egun, hirurehunetik gora obra plazara-
tuak ditu Auspoa liburu-bilduma osoak. Ba-
tez ere, bertsoz osatutako liburuak dira. Bai-
na, horretara mugatu gabe, ia ehun liburu
ditu prosaz idatziak; eta hauetako gehienak,
herri-prosaz.

Bertsopaperak biltzen hasi zen Antonio Za-
vala 1954an, eta horien bilduma handia argi-
taratzea zuen asmo 1956an.

Zavalak 1964an beteko du bere ametsetako
bat. Lehendik aurkitua zuen beste altxor
preziatu bat, hogeita hamabost urte geroago
gogoratuko duenez: «Ni gauza batek arritu
nau beti, bai Euskal Errian eta bai emendik
kanpo ere: erri-gizon eta emakume asko eta
asko zein kontalari onak diran. [...] Bitar-
tean nere buruari: “Kontaera auek merezi lu-
kete, ba, papereratzea. Zer literatura ede-
rra egin litekean, aozko *narrativa* au idatziko
balitz!”».

Zavalak horrelako kontaketez ondu zituen
Txirritaren eta Pello Errotaren biografiak.
Baina beste urrats bat falta zitzaion: kontala-
ri horietako bat idazten jartzea. Sebastian
Salaberria izango da lehena: 1964an plazara-
tuko du honen *Neronek tirako nizkin* auto-
biografia.

Urratua zuen bidea, baina beste hamar urte
itxaron beharko du bigarren kontalariaren li-
burua argitaratzeko: Uztapideren *Lengo egu-*

nak gogoan. Izan ere, nahiz eta Zavalak behin eta berriro eskaini zenbaiti idaztea, atzera egiten zioten denek, arrazoi bera emanez: jendaurrean barregarri gelditzeko beldurra.

Esan gabe doa Uztapidek berak idatzi zuela liburua, nahiz eta Zavalak lagundu liburua planifikatzen eta gero Zavalak berak pasatu garbira, ortografia-eta egokituz.



Uztapide familiarekin Joakin Berasategi eta Antonio Zavala

Liburuaren arrakasta

Harrera ezin hobea izan zuen liburuak, arrazoi askorengatik. Gogoratu berriak ditugu garrantzizkoenak: Juan Mari Lekuonak aipatutako merezimenduak. Baina irakurle banakotan izandako arrakasta baino handiagoa ere izan zuen, Zavalak aitortzen duenez *Berriz plazara* argitaratzean:

Bolara artan ni erri-prosa au zutik jarri nairik nenbillen. Baiña etzan erreza jendea ortaratzen. Parregarri gelditzeko bildurra zuten. Uztapiderena atera ondoren, berriz, gauzak batekoz bestera aldatu ziran. Andik aurrera, jendeak errez ematen zuan baiezkoa. Parregarri gelditu gabe, txaloak jasotzen zituztela ikusi baizuten. Eta, bestetik, gure Manuelen euskera berena zutela. Orrengatik, erri-prosa onek bi garai ezagutu ditu: Uztapideren *Lengo egunak gogoan* liburua-
ren aurrekoa eta ondokoa.

Lengo egunak gogoan honen ondoren, «era ontako liburu-zerrenda luzea agertuko da, dantza-soka batean bezela», Zavalak dioenez. Zerrenda luze horretan, hirurogei obra badira gutxienez, hogeita hamar idazlek idatziak.



Zarauzko omenaldian, emaztearekin

Azken batean, emagin-lanak egin zituen Uztapidek, Zavalarekin batera. Euskal kontalari askori lagundu die, izan ere, barruan zeramaten idazleaz erditzen.

Herri-gizon maitagarria, bertsolari-eskola zaharren eredu eta ondoko belaunaldiekiko zubi, bertsolari berrien aita eta maisu, idazle askoren emagin... Bete ote daiteke egokiago mundualdi hau?

Oiartzunen hil zen Uztapide, 1983ko ekainaren 8an.



Oiartzunen eskainitako oroitarria, 1975-VIII-8

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Olaizola familiari
- Joxe Mari Iriondori
- Joakin Berasategiri
- Sendoa Argitaldariari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko ekaina

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2571-9 (Lan osoarena)
978-84-457-2574-0

L.G.: BI -

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística